

Jaialdia  
**Giza Eskubideen  
Zinemaldia**

20

DK  
memoria

24



# Jaialdia

## GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

Konpromisoa eta kontzientzia eraikitzen lagundu nahi duen jaialdi honen aurtengo edizioa apirilaren 12tik 19ra ospatu zen. Erantzun bikaina jaso zuen publikoaren aldetik, eta euskal zinemaren presentzia handia izan zen, baita palmaresean ere. **Indarkeriaren oi(h)artzunak** (Publikoaren Saria) eta **Muerte en Amara** dokumentalak estreinatu ziren lehen aldiz, eta **Nina** euskal filmaren estreinaldia ere izan genuen. Bestalde, lau euskal film laburrek hartu zuen parte formatu horretako nazioarteko sailean.

**Fernando Leóni** eman zitzaion ohorezko sariak inauguratu zuen presentzia interesgarriz betetako astea; gure artean izan genituen, esaterako, **Benito Zambrano, Andrea Jaurrieta, Amaia Merino** eta **Ander Iriarte** zinemagileak, bai eta **Tamara Muretagoienaren, José Antonio Luengoren** eta **Carmen López Alonso** katedradunaren testigantzak. Ukraina, Palestina eta osasun mentala izan ziren interes handiena piztu zuten gaietako batzuk.

**8.001 ikusle** joan ziren Jaialdiko zinema-proiektzioetara; **4.920** lagun Victoria Eugenia eta Principal antzokietako **21** emanaldietara; **2.790 ikasle Principal** antzokiko goizetako **9** saioetara, eta **291** lagun Tabakaleran, **Zinema eta memoria** zikloaren barruan programatutako saioetara.



*El salto*, Benito Zambrano. Inaugurazioa



*Nina*, Andrea Jaurrieta & Iñigo Aranburu. Klausura



Fernando León de Arano, 2024 Saria

# 21

## GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN / 2024

12 - 19 apirila / abril



Human Rights Film Network  
Connecting human rights film networks around the world

[www.zinemaetagizaeskubideak.eus](http://www.zinemaetagizaeskubideak.eus)  
[www.cineyderechoshumanos.eus](http://www.cineyderechoshumanos.eus)

Antolatzaileak / Organizan



argazkia / foto: SESU | 300º Jostiz Zabala & Unesa Montero

Babeslea / Patrocina



Parte-hartzaileak / Participan



Laguntzaileak / Colaboran





Baloreak erakusketa

**7.847 lagunek** bisitatu zituzten antolatutako lau erakusketak: **Pakistan: Indusen ibaibideak** (Aiete Kultur Etxea), **26. Luis Valtueña Nazioarteko Saria - Argazkigintza Humanitarioa** (Okendo Kultur Etxea), **Artea eta Giza Eskubideak, Haur eta Gazteen 20. Erakusketa** (Victoria Eugenia antzokia) eta **Baloreak** (Liburutegi Nagusia).

Gainerako jardueretan (**Mugi TÚ** online jokoa, Lamine Thiorren bakarrizketa Principal antzokian, eta Amnesty International erakundeak antolatutako mahai-ingurua: **Protestar no es un crimen**) **1.502** lagunek hartu zuen parte.



Los cauces del Indus erakusketak



Españul, Lamine Thior